

Aernova, Fill, SGL Group eta Twente-ko Unibertsitatea izango dira 2017 MATCOMP-eko osoko konferentzietako liderrak

2017/06/02

MATCOMP 2017an aurkezten diren ponentzia teknikoak bost saio paralelotan multzokatu dira, ondorengo gaien arabera banatuta: materialak eta multimaterialak, portaera zerbitzuan, prozesuan, aplikazioan, bat-egitea eta atxikimendua eta azkenik birziklatzea eta iraunkortasuna, industrian eta gizartean osatutako material konposatuen erabilerekin erlazionatutako alderdi guztiak estaliz.

Osoko lau biltzarrek emango dute Material Konposatuen fabrikazio prozesuen automatizazioaren eta lehengaien garrantziaren gaineko ikuspegi industriala. **Aernnova-ko Miguel Angel Castilok** azalduko du “Desarrollos tecnológicos de Aernnova en Cleansky 2, H2020”. **SGL Group-eko Andreas Erber-en** hitzaldia “Composite intensive lightweight design in automotive – today and tomorrow” izango da. **Fill-eko Wilhelm Rupertsberger-ek** “4 x 4 Strategy - Base for Automation in Composite Manufacturing” hitzaldia eskainiko du. Eta **Twente-ko Unibertsitateko Baran doktoreak**, bere ikuspegi zientifikoa eskainiko du, “How to overcome challenges in reliable composite manufacturing” hitzaldiaren bidez.

Jardunaldi bakoitza sektore aeronautikoa, automobilgintza eta makina-erremintarekin erlazionatutako mahai-inguruekin bukatuko da, Espainiako Material Konposatuetako I+G+i-a irudikatzen duten enpresa-komunitate tekniko eta zientifikoetako ideia-truke eta beharrianak elkartrukatzeko foro bihurtu direnekin. Material Konposatuen etorkizunak aukera handia eskaintzen die produktu eta prozesu berrietan interesa duten guztiei. Bere mugak oraindik zehaztu gabe daude ikerketari, bere ezagutzari eta aplikazio errealeen etenik gabeko garapenari esker.

Mondragon Unibertsitateak Tecnaliarekin eta AEMAC-ekin batera antolatutako Kongresuak garrantzia du, hain enpresa nabarmenduen babesle bezala aritzeagatik: **ESI-Get it right, Corporación Mondragón, TITANIA, FIDAMC, AIRBUS, IRURENA Group, 3M, METTLER Toledo, M.TORRES, NETZSCH, ZWICK-ROELL, DASSAULT SYSTEMES/PRINCIPIA eta Eusko Jaurlaritza.**

